

Galdera

Elkarrizketa informal batean, batak, eskerrak eman, eta besteak “Ez horregatik” erantzuten dio. Bada erantzuna emateko beste modurik?

Erantzuna

Bai, jakina

1/Hona hemen bururatzen zaizkigun batzuk:

ez da(go) zergatik

ez da(go) eskerrik

ez da(go) zeri

ez da ezer ere (izan)

ez da gauza asko

zeuri

Edo testuinguruaren arabera bat-batean asmatzen ditugunak:

- Trankil! Pagatuko didak pote bat!
- Isilik egon hadi, eta ekarri bostekoa!
- Bueno, bueno: nahikoa da!
- Neuk ere maite zaitut
- ...